



KOSTUEN EGITURAK

KF (Kostu Finkoak)

- **Lokala:** Udalak lokala eskainiko digu; beraz, ez dugu lokalaren alokairuagatik ordaindu beharrik, baina bertan sortzen ditugun gastuak gure poltsikotik ordaindu beharko ditugu.
- **Soldatak:** 1.500 € irabaziko dugu bakoitzak, baina lau pertsona garenez, guztira 6.000 € izango dira.
- **Berogailua edo airea:** 100 € ordainduko ditugu hilabetero.
- **Ura:** Gutxiago erabiliko dugu; beraz, 20 € ordainduko dugu.
- **Argia:** 100 € ordainduko ditugu hilabetero.
- **Wifi:** Ordenagailuekin ibiliko garenez, wifia ere eskuragarri izango dugu eta 40 € ordainduko dugu.
- **SEGUROA:** Seguruaren kostua, 500 € hilero. Oinarrizkoa eta istripu edo kalte posibleen aurrean babesteko.

KA (Kostu Aldakorrak)

Kostu aldakorrak hilero aldatzen diren gastuak dira, egindako jardueren arabera. Ekitaldi, kanpaina edo unean uneko beharren arabekoak dira.

1. Kamisetak

Parte-hartzaileentzako edo boluntarioentzako kamisetak erosteko gastuak. Hilabete bakoitzean aldatu egiten dira, eta urteko guztizkoa **1.304 €** da.

2. Sudaderak

Jardueretarako edo kanpoko ekitaldietarako sudaderak. Hilabeteko gastua 120 € eta 360 € artean dago, urtean guztira **1.920 €** izanik.

3. Bisera

Kanpo-jardueretarako eguzkitako txapelak edo biserak. Guztira **390 €** urtean.

4. Poltsa

Ekitaldietarako edo material banaketarako poltsak erosteko gastuak. Hilabete batzuetan 40 € eta 120 € artean gastatzen da, urteko guztizkoa **540 €** izanik.

5. Mendira joan (2 hilabetero)

Bi hilabetean behin antolatutako mendi irteeren kostua. Ez da gasturik erregistratu, beraz, ez dira egin aurreikusitako irteerak.



6. **Kontzertuak**

Kontzertuak antolatzeke edo bertaratzeko gastuak. Hilabete batzuetan 600 € gastatzen da, eta guztira 2.400 € urtean.

7. **Zinemarako sarrerak**

Zinema sarreren kostuak. Hilabeteka 1.190 € gastatzen da, urte guztian 5.950 € izanik.

8. **Egun pasak**

Egun osoko irteerak. Hilabete batzuetan 5.600 € gastatzen da (iraila, abendua, martxoa eta uztaila). Urteko guztizkoa 30.800 € da.

9. **Hamaiketakoa (Patatak, fruta...)**

Jardueretarako mokaduen kostuak (patatak, fruta, etab.). Gastua txikia da: 16 € hilero, guztira 160 € urtean.

10. **Udalekuak (Kanpamentuak)**

Adin-taldeka banatutako udalekuak:

- **Udalekuak 1 (18-20 urte):** 30.000 € uztailan.
- **Udalekuak 2 (14-17 urte):** 20.000 € uztailan.
- **Udalekuak 3 (12-14 urte):** 26.400 € uztailan.